

5

Hiruhilabetekaria
urria-azaroa-abendua



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Arabako
Foru Aldundia



Diputación
Foral de Alava

kanpo



aurkibidea

Zk. 5

- 1 Artikulua
"Ludopatia eta Familia"
- 2 Elkarrizketa
"Peio López de Munain"
- 3 Arazoa duen pertsona baten festigantza
"Nire eskarmentua Ludopatiaz"
- 4 Hiritarren erantzuna
- 5 Hiriko eta probintziako baliabideak
"Nola hauteman daiteke Ludopatia Gizarte Zerbitzuetan? Profesionalentzako Gida erabilgarria"
- 6 Balorazioak
"Hiruhileko onena eta txarrena"
- 7 Gomendioak
"Gomendatutako liburua eta DVDa"
- 8 Iritziak
"Iradokizuna edota iritzien postontzia"

Argitaratzailea: ASAJER. Erreabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte

Laguntzaileak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia), Osasun eta Kontsumo Saila (Vitoria-Gasteizko Udala) eta Euskadiko Kutxa

Argazkiak: Asajer

Diseinua: ERDU

maketazioa: KOMUNIKA DIGITAL 2.0

Itzulpenak: Higan Itzulpen Zerbitzuak

Inprimatzailea: Vicuña Grafikoak

Lege-Gordailua: VI - 356 / 07

Ludopatia eta Familia

Hasiera batean ez da erraza izaten jokalaria patologikoa nor den antzematea, izan ere, kanpotik beha ez da hautematen kontrola nola galtzen den. Gainera, beste mendekotasun batzuetan gertatzen den moduan, ohikoa izaten da gaixotasuna ukatzeko joera.

Jokalariek ez dute tratamendua eskatzeko motibaziorik izaten eta eskatzen badute, jokoaren ondorioz sortutako arazoen eraginez (depresioa, alkoholismoa, ordaindu ezin diren zorrak,...), familian edo lanean egindako presioaren eraginez, edo aginte legalak hala agindu duelako izaten da.

Egoera emozionala konpontzen saiatzea, mendekotasun egoera baten aurrean daudela ulertzea, errudun sentipen oro uxatzea eta kontrola galtzea gerta daitekeela ulertzea da, familian halako arazorik antzematen duten senitartekoei egin behar duten lehenengo gauza.

Jarraitu beharreko irizpideak eta bete beharreko helburuak irmotasunez planteatu behar dira, horrez gain, ezinbestekoa da jokalaria izaten dituen erreakzioak ulertzea; horretarako, jokalaria egoeran jartzea komeni da. Pertsona diren aldetik begirunea zor zale, jokatze gogorik eza mantentzea eman, betiere, ez jokatzearen ardura jokalaria dela gogoan hartuz.

Hala eta guztiz ere, tratamendua har dezala errepikatzea komeni da. Normalean, senitartekoei ez dute prestakuntza eta esperentziarik mendekotasunei aurre egiteko, hori dela eta, beharrezkoa izaten da tratamendu bat hartzea arazoari irtenbidea emateko eta laguntza profesionala eskatzea pairatzen duen egoera emozional berezia gainditzeko, sortuko diren arazoaren aurrean behar nola jardun jakiteko, prebentzio-neurriak errazago betetzeko, negoziagarriak ez diren arloak betetzeko eta jokalaria duen arazoa ikuspuntu terapeutiko batetik jorratzeko. Oso garrantzitsua da errehabilitazio-prozesua luzea izaten dela ulertzea. Bestalde, hainbat helburu lortzearekin batera berreskuratuko da konfiantza, izan ere, dirua kontrolatzeak soilik ez du konfiantza ematen.

Argi dago, arlo horretatik familiaren adostasuna eta laguntza handiago den heinean errazago onartuko duela jokalariai trastorno bat duela eta, modu horretan, iruzurrak iruzur, oraindik onartu egiten dituen afekzio-harremanak mantentzen saiatuko da.

Jokalaria zer gertatzen ari den azaldu behar zaio elementu objektiboak erabiliz: jokatzen xahutzen dituen kopuruak, familiari eskaintzen ez dion denbora, bere suminkortasuna eta urduritasuna, egiaztatu dituzuen gezurrak, etab. Eta zuek nola sentitzen zareten ikustaraztea: etsita, kezkatuta, engainatuta, desilusionatuta... eta bere egoera aldatzeak guztion egoera emozionala aldatuko duela ikustaraztea, etab.

Prebentzio-neurriak betetzeko, jokia uzten lagunduko dion tratamendu bat hasteko, berrerori arren edo hanka sartu arren berriz ere laguntza eskaintzeko jarrera erakutsi behar da, ez utzi hori egiteari jokalaria jokia uzteko asmoa erakusten duen bitartean...

Peio López de Munain

1. Jokoaren mende dauden pertsoneri laguntzeko ASAJER bezalako elkarteeri zer deritzetezu?

Ezinbestekoa da Asajer bezalako elkarteak egotea. Herritar askorentzat mendekotasunak ikusteko modurik onena da. Errazagoa da hurbiltzea informazioa edo laguntza eskatzera Asajer bezalako elkarte batera erakunde batera baino. Bestalde, udalarentzat lankidetzarako biderik onena da prebentzio lanak egiteko.

2. Zure ustez Vitoria-Gasteizen baliabide nahikorik dago jokoarekin arazoak dituzten pertsonentzat?

Egia da gure hiriak beste batzuek baino askoz baliabide gehiago duela, beste batzuekin alderatuz gero hobeto gaude, bai. Hala ere, arazo hauek dituzten pertsonak egonez gero, baliabideak inoiz ez dira nahikoak. Lanean jarraitu behar dugu, berrikuntzak egiten, eta batez ere prebentzioa lantzen.

3. Ludopatiaren arloren batean eragin behar al da zure iritziz?

Dudarik gabe, mendekotasun berrietan sakondu behar dugu... poltsikoko telefonoek, internetek, sareko jokoek edo apustuek sortzen dituzten horietan... ahaztu gabe beste alderdi batzuk, generoa esaterako; izan ere, mendekotasuna pairatzen duten emakumezko asko herabe izaten dira arazoa onartzeko orduan.

4. Zein ekintza mota jarri dituzte martxan edo aurreikusten dituzte Vitoria-Gasteizko Gizartegintza edo Osasun eta Kontsumo Sailetak?

Gure helburua da prebentzioa lantzen jarraitzea, batez ere gazteekin. Horretarako Asajer-ekin lanean jarraituko dugu prebentzio programa batzuetan, eskoletan egiten direnetan, esaterako. Baina gizartean hain dago errotuta jokoak, badirudiela kontrakarrean ari garela honelako kontuetan.

5. Zure ustez Gasteizko herritarrak nahiko sentsibilizaturik daude ludopatiarekin?

Lehen esan dudan moduan jokoak hain erroturik dago jarraitu behar dugula lantzen sentsibilizazio arloa, hots, prebentzioa. Gure gizarteak jokoak bultzatzen du, sari azkarrak lortzea... Kontzeptu horietatik aipatu ditugun mendekotasun horiek erator daitezke. Lanean jarraituko dugu, emandako hitza betetzen.



Vitoria-Gasteizko Gizartegintza edo Osasun eta Kontsumo Sailetako zinegotzia

Jalotze-data eta tokiak: 1954ko urtarrilaren 19a, Vitoria-Gasteiz (Araba).

Ikasketak: Industria maisua.

Lanbidea: Gizarte Zerbitzu eta lako koordinatzailea.

Karguak: Vitoria-Gasteizko Udaleko zinegotzia, 2001. urteaz geroztik.

Hiesaren Kontrako Mugimendu Herritarren Fundazioaren Patroiatuko lehendakaria. HIESaren kontrako tratamenduei buruz prestatzeko eta informatzeko fundazioaren lehendakaria.

arazoa duen pertsona bat

Kaixo adiskideok!

Espero dut honakoa irakurri ostean Ludopatiaren arriskuaz jabetzea.

Txanpon gutxi batzuekin hasten gara, zerbait kontsumitu ondoren itzuli dizkiguten txanponekin. Sari potoloren bat jasotzeko zoriona (ZORITXARRA) izaten badugu, A ZER MAUKA! pentsatu ohi dugu, eta pixkanaka-pixkanaka ludopatiaren arrastoan sartzen gara. Gero eta gehiago pentsatzen dugu jokoan eta zera esaten dugu gure egunetik egunera gehiago. Orduan hasten dira urduritasunak, ez dugu atsedenik hartzen, gaizki sentitzen gara, engainatu egiten dugu, gezurrak esaten ditugu, baina, hala ere, makina modarikatuekin obsesionatuta jarraitzen dugu.

Une jakin batean laguntza eskatzea pentsatzen dugu, baina, Nori?

Denboraren poderioz leherketa gertatzen da eta guztia agerian geratzen da eta...Nola azaldu uler gaitzaten? Ia ezinezkoa da.

Gogoan dut nire emazteari kontatzeko zein gaizki pasatu nuen, zer-nolako negarrak! Baina berak esan zidan: "Aurrera, goaz, irtenbidea bilatu behar diogu honi".

Mediku bat ezagutzen dut eta gure egoeraren berri eman genion. Honakoa esan zidan bat-batean: "Pedro, ustela zara". Une horretan ziztatzen bazidaten ez nuen odol tantarik isuriko, baina egia zen, ustel sentitzen nintzen.

Irtenbide bila hasi eta ElkarTE hau ezagutu genuen. Hasiera batean gogorra egiten zitzaidan hona etortzea, baina, azkenean, aurrera egin genuen, zoriekoa nil!

Oso bide onetik hasi nintzen baina berriro jausi nintzen jokoaren sareetan. Bi urte igaro nituen behin eta berriz altxatu eta erortzen. Oso gaizki sentitzen nintzen.

1994ko abuztuaren 27a gaur izango balitz bezala gogoratzen dut. Egun horretan nire buruari zin egin nion ez nuela txanpon bat gehiago xahutuko.

Gaur egun, askoz hobeto sentitzen naiz alderdi guztietan. Makinak bazter uzten ditut eta ez dit beldurrik ematen parez pare begiratzeak ere. Hau dio, lehenago, begiratzen nituenean egonezina sortzen zitzaidalako.

Adiskideok, trantze horretan bazaudete, utzi zalantzak alde batera eta jo ezazue Elkartera. Ez duzue ezer galduko, aitzitik, irabazten aterako zarete, izan ere, norekin hitz egin dezakegu gai honi buruz uler gaitzaten, ez bada, arazo bera duten pertsonekin?
EZ IZAN ZALANTZARIK, JO EZAZUE ASAJER ELKARTERA.

Lerro hauen bitartez nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot ASAJER elkarteari emandako laguntzagatik. Eta bereziki nire emazteari eta alabei, izan ere, haien laguntza eta babesa izan ez banu, ez dakit gaur egun nola egongo nintzatekeen.

Mila Esker denoi.

erantzuna

Abenduaren 22an eta Urtarrilaren 5ean urtero zozketa garrantzitsuenak ospatzen dira eta, Loteriak ere, orduan izaten du partaidetza gehien.

Herritar gehienek "tradizio kontuagatik, oparitu egin dizkietelako edo familia osoak erosi duelako" zozketa hauetako dezimoak edo loteriako partaidetzak izaten dituzte eskuetan.

1. **Ba al duzu Gabonetako Loteriaren edo Haur-Loteriaren loteriako partaidetza edo dezimorik?**
2. **Urtero erosten al duzu?**
3. **Zenbat diru xahutu duzu aurten aipatutako Loteria horietan?**
4. **Gurean sumatzen den krisialdiaren eraginez, zure ustez, zozketa horietarako erosketa gastua areagotu egin al da? Eta zuk, gehiago gastatu al duzu?**

52 urteko gizonezkoa:

1. Bai, leku askotatik hartu ditut.
2. Bai, urtero erosten dut.
3. Aurten 160 €.
4. Uste dut berdintsu izaten ari dela, hurrengo urtean gehiago nabarituko da. Nik berdin gastatu dut.

25 urteko emakumea:

1. Ez dut ezer erosi, baina pentsatzen dut zerbait emango didatela.
2. Ez dute sekula erosten, baina nire senitartekoak oparitzen didate.
3. Ez dut ezer gastatu.
4. Gastua areagotu egingo zela uste dut, norberaren ekonomia hazi asmoz. Nik ez dut gastatu, ez gehiago ez gutxiago.

54 urteko gizonezkoa

1. Bai, 3 dezimo ditut, bat tabernakoa, bestea lanekoa eta kanpotik ekarri didaten beste bat.
2. Bai, ohitura da.
3. 60 € gastatu ditut.
4. Bai, baina ez dakit bakoitzak gehiago gastatuko duelako edo jende gehiago parte hartuko duelako.

hiriko eta probintziakoak

NOLA HAUTEMAN DAITEKE LUDOPATIA GIZARTE ZERBITZUETAN?

PROFESIONALENTZAKO GIDA ERABILGARRIA

Gida hau Gizarte Zerbitzuetako langileei bideratuta dago eta, ludopatia garaz antzemateko hainbat tresna helaraztea da bere xedea, esparru horretatik ludopatiaren arazoari aurre egiteko irizpideak emateaz gain.



Hiruhileko onena

Azaroaren 6 eta 7an JOKOAREN ETA TEKNOLOGIA BERRIEN MENDEKOTASUNARI BURUZKO III. JARDUNALDIAK ospatu ziren. ON-LINE JOKOAREN EGOERA ZERTAN DEN, MENDEKOTASUNA ERAGITEN DUTEN JOKABIDEAK ETA TRATAMENDUA, ASAJER-ek antolatuta, Europa Biltzar-Jauregian.

Hainbat ikuspuntu eta ikuskera profesionaletatik on-line jokoaren gai berria jorratu zen, prebentzio eta tratamendu mailan.



Hiruhileko txarrena

Jasaten ari garen krisi ekonomikoa herriko sektore guztietan nabari da eta, ludopatiaren sektorea ez da salbuespena. Ildo horretatik, ASAJER-ek ludopatiaren esparruan lan egiten jarraitzeko ezinbestekoak diren hitzarmen eta diru-laguntzak murriztu egingo dituztela iragarri dute erakundeek.

Modu horretan, herritarren arazo ekonomikoen ondorioz ausazko jokoak nolabaiteko bultzada jaso du, arazo ekonomikoak bide horretatik arintzeko itxaropenez.



gomendatutako liburua

LUDOPATÍA Y RELACIONES FAMILIARES

EGILEA/K: Miguel Garrido. Pedro Jaén. Ana Domínguez

URTEA: 2004

Liburu hau joko patologikoaren mendekotasunaren arloan urte askoan egindako lanaren ondorio da. Bertan jokoaren mendekotasuna harremanezko arazoaren ikuspegitik nabarmentzen da, izan ere, sarritan, jokalarien bikoteak ere pairatzen baitu arazoa.

Familia-sistema baliabide garrantzitsua izan daiteke arazo hau jasaten duten pertsonak osatzeko bidean. Ludopatiaren ikuskera honek ikuspuntu berri eta iradokitzailea eskaintzen du eta jokoarekiko mendekotasuna ulertzeko modu osagarri bat txeratzeko asmoa du; arazoaren agerpenean, iraunkortasunean eta desagertzean inplikaturik dauden ohi diren faktore indibidualetatik haratago.



gomendatutako dvd



APOSTANDO AL LIMITE

Zuzendaria: D.J. Caruso. 2005. USA.

Aktore-zerrenda: Al Pacino (Walter Abrams), Matthew McConaughey (Brandon Lang/John Anthony), Rene Russo (Toni), Armand Assante (Novian), Jeremy Piven (Jerry), Jaime King (Alex), Chrislyn Austin (Julia), Ralph Garman (Reggie), Kevin Chapman (Southie), Gedde Watanabe (Millon).

Generoa: Drama. **Iraupena:** 122 min.

Sinopsia: Brandon Langek (Matthew McConaughey) amets bat dauka, infantiletako ligetatik unibertsitateko eraman duena. Bere ikusmira oso irmoa da eta ondorioz, Las Vegaseko apustu-entrega bateko etzatoki batean lan egiten jarraituko du, bizitza aldatuko dion gutunaren zain. Arazo bakarra zera da: Brandonek dagoeneko ez duela balio futbol-jokalaria izateko. Belaunetan izandako lesioen ondorioz liga profesionalean jokatzeko ametsa hankaz gora joan da. Ezezo erantzunak jasotzen ditu behin eta berri, baina bere burugogorkeriak saria jasotzen du. Gutxien espero zuenean talentu-behartzailerik fitxatu du. Abram (Al Pacino) Herrialdeko kirol-apustuen aholkularitza zerbitzu nagusiko eragile nagusia da, bere ustez, Brandon asteburuko futbol partidetak irabazleak aukeratzeko dohaina duen eta azkenetan den quarterback hutsa baino askoz gehiago da. Oso ezegonkorra den mundu batean, ehuneko ehuneko segurtasuna saltzea ahalbidetuko dion giltza da: kirol-apustuen munduan, hain zuzen.

Iradokizuna edota iritzien postontzia

Joan den urriaren 23an, Iparralde Gizarte Etxean, Ioseba Zabala jaunaren (Udaletxeko Osasun eta Droga medikua) presentzia izateko zoriona izan genuen.

ASAJER elkarteak antolatutako hitzaldi horretan, "Ludopatia eta beste kontsumo batzuk" izenburupean, ludopatiaren gaia eta bestelako substantzia batzuen kontsumoa ikuspegi neurologiko batetik jorratu zen.

Oso interesgarria izan zen medikuaren ikuspuntutik eman zuen mintzaldia eta azalpen guztiak argitasunez eta gardentasunez eman zituen.

Elkartearen barnean dauden pertsona eraginduen bertaratze eskasa izan zen eguneko puntu makurra. Hori dela eta, ludopatiaren inguruan gerora ere antolatuko diren era honetako ekintzetara bertaratzeko gomita luzatzen dizuegu, izan ere, oso interesgarria izango zaizuelako uste osoa dugu.



*Animatu
eta idatzi!*